

## **Petronorrek behin betiko ingurumeneko baimena jaso du**

Petronorrek gaur jaso du, 2008ko azaroak 19ko datarekin, dagokion Ingurumeneko agintarien ebazpen bikoitzaren Ingurumeneko Sailburuordearen idatzia. Batetik, ingurumen eraginen adierazpenari dagokionez, baiezkoa eman diote eta, bestetik, Fuel-olioa Murrizteko Unitatearen (URF) proiektuaren ingurumeneko eta energia elektrikoa ere sortzeko baimen bateratua ematen.

Petronor oso pozik azaldu da Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak Euskadiko Ingurumenaren Babeserako Lege Orokorrak biltzen dituen eskakizunak betetzen dituen proposaturiko URF-aren proiektua onartu duelako.

Euskadiko proiektu industrial garrantzitsuenetariko bat da. 820 euro inguruko inbertsioa izango du azkenean, eta egun dauden 6.200 lanpostuen jarraipena ziurtatuko du – zuzenak, ez-zuzenak eta eragindakoak--. Gainera, beste 1.680 sortuko ditu. Planta eraikitzeko, 1.575 langile inguru beharko dira, 2.500 une batzuetan. Ekoizpena 2011ko udaberrian hasiko dela uste da.

Muskiz, 2008ko azaroak 21